GOZATU SAREAN EUSKARAZ

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=28839783&insid=11169170&pgid=1356874&fmtid=72131&ckid=5185739476508180335&uii=7262884372613719461&acd=1664399952767&opid=8186-4e97-b141-f25f4f134795&opdt=1664399952677&tmstp=4135667722&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systgt=%24qc%3d1311819901%3b%24ql%3dL_59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pq4KuR4Eu3LBIQNlHMHUTUmwaokVrzHsak2MryNKJ7LEmnMZO2dYGHtPn91TuZKY7_78__fz3z-v_t_-39T37-3_3__5_X---_e_V399zLv9____39nN___9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCgAooBhaJrABgcFOysAj1BCwAQmoCMCIEGIKMGAQACAQBIREBIAWCARAEQCAAEAKkBCAAiYBBYAWBgEA ondorioz-sagarrak-azkarrago-heltzen-ari-dira.htm&cappid=5185739476508180335&go=https%3a%2f%2fwww.gozatusareaneuskaraz.eus%2feu)



# Lehortearen ondorioz, sagarrak azkarrago heltzen ari dira

Fruitel eta Sagardoaren Lurraldeak egindako txostenak baieztatu du beroaren ondorioz sagar gehiago erortzen ari direla. Iazko sagarrekin alderatuta, aurtengoek almidoi gutxiago eta azukre gehiago dute. Sagarren uzta ospatzeko, festa bat egingo dute bihartik urriaren 31ra bitarte.



Txostenaren eta jaialdiaren aurkezpena Astigarragan, gaur goizean. IDOIA ZABALETA / FOKU

2022ko irailak 22 10:50

f (https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https://www.berria.eus/albisteak/218483/lehortearen-ondorioz-sagarrak-azkarrago-heltzen-ari-dira.htm)
(https://twitter.com/share) 0 (https://www.berria.eus/albisteak/218483/lehortearen-ondorioz-sagarrak-azkarrago-heltzen-ari-dira.htm#iruzkinak)
(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

2030 AGENDA ULERTZEKO IKASTAROAK

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=28777333&insid=11146642&pgid=1 f00f-402e-81a5-e0b6cd7a8387&opdt=1664399952677&tm _59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pq4KuR4Eu3LBIC v_t_-39T37-3_3__5_X---_e_V399zLv9____39nN___9v-CDYBJhqXkAXYljgybRpVCiBGFYSHQCg ondorioz-sagarrak-azkarrago-heltzen-ari-dira.htm&cappid=5185739476508180335 agenda-ulertzeko-ikastaroak%2fweb01-a2lehetr%2feu%2f)

## Gehien irakurriak (https://www.berria.eus/iraku

Beroaren eta lehortearen ondorioz, sagar gehiago ari dira erortzen, eta sagarrak azkarrago ari dira heltzen. Hala dio gaur Astigarragan (Gipuzkoa) aurkeztu duten sagardo sagarraren heldutasunaren XXII. txostenak. Barnealdeko sagastietan, gainera, are gehiago erori dira. Horrez gain, egungo klima baldintzak aldatzen ez badira, litekeena da sagarrak gero eta azkarrago heltzea.

Sagarra nola dagoen jakiteko, Gipuzkoako sagasti batzuetan kontrola egin dute hil honen hasieran, aurreko urteetan bezala. Hamalau sagasti barietate kontrolatu dituzte. Emaitzek adierazi dute sagarrek almidoi gutxiago eta azukre gehiago dutela, 2021eko datuekin alderatuta.

Heldutasun datuak ikusita, eta, almidoiaren erregresioaren arabera, hiru taldetan banatu dituzte hamalau sagastien barietateak: aurreratuenak –adibidez, Patzolua eta Gezamina–, erdikoak –Aritza, Urtebi Haundi eta Udare Marroi– eta atzeratuenak –besteak beste, Errezila eta Urdin–.

**Sagarraren festa, bihartik urriaren 31ra bitarte**

Astigarragako sagarraren festaren aurkezpenean eman dituzte datuok. *Udazken zaporez* lelopean, sagarraren uzta garaiaz gozatzeko, hainbat ekintza antolatuko dituzte bihartik aurrera. Jaialdiak urriaren 31ra arte iraungo du. Aurtengo egitarauaren antolaketan parte hartu dute Astiko merkatarien elkarteak, Astigarragako Udalak eta zenbait tabernari eta kultur taldek.

Lehenengo egitasmoa XXII. Sagar Uzta izango da; bihar hasiko da. Egun nagusia, hala ere, irailaren 25a izango da, uztaren azken eguna. Egun horretan, aukera egongo da herriko familiek egindako 2022ko uztako lehen

Izan BERRIAKIDE (https://www.berria.eus/berrialaguna/) Hasi saioa (http

1 **Miren Larrion: «Ez naiz ezkutatuko, eta ez naiz geratuko burua altxatu gabe» (https://www.berria.eus/albist larrion-ez-naiz-ezkutatuko-eta-ez-naiz-geratuko-burua-altxatu-gabe.htm)**
PAULO OSTOLAZA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/PAULO_OSTOL

2 **«Ikurrina hartu izan banu, ez nintzateke Europako txapelduna izango» (https://www.berria.eus/albist hartu-izan-banu-ez-nintzateke-europako-txapelduna-izango.htm)**
JULEN OTAEGI LEONET (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/JULEN_OTAEGI

3 **Irakasleek berriz ere aukera edukiko dute eszedentziak noiz amaitu aukeratzeko (https://www.berria.eus/albist berriz-ere-aukera-edukiko-dute-eszedentziak-noiz-amaitu-aukeratzeko.htm)**
IRATI URDALLETA LETE (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/IRATI_URDALLI

muztioa eta sagardogileek beren postuetan emango duten muztioa dastatzeko. Horrez gain, antolatzaileek dei egin dute azken eguneko topa herrikoian parte hartzera: 2022ko uztako lehen muztioarekin topa egingo dute 13:00etan, Foru plazan.

Beste hainbat ekintza egingo dituzte urria bukatu arte; besteak beste, eskaintza gastronomikoak eta musika emanaldiak. Gainera, familia osoarentzako ekintzak ugariak izango dira. Urriko larunbat eta igandeetan, familian egiteko sagar muztioen elaborazio tailerrak antolatuko dituzte. Larunbatetan, goizez zein arratsaldez izango dira tailerrak. Igandeetan, berriz, soilik goizez. Familiek beste zenbait planez gozatu ahalko dute; hala nola txalaparta tailerra izango dute irailaren 23an, eta *Sagar-bira* izeneko mendi buelta irailaren 24an.

Irailaren 29an hasita, ostegunero, 18:00etatik 20:00etara, sagarrari buruzko ikastaroak egingo dituzte. Lau ikastaro emango dituzte guztira, eta urriaren 20koa izango da azkena. Sagarra ardatz hartuta, ikastaro bakoitzak gai bat jorratuko du.

Kirola eta kultura uztartzeko asmoz, urriaren 22an Urumean barrena kanoatan ibiltzeko ekintza bat antolatu dute. Ibilbidea Loiolatik Ergobiko zubira (Gipuzkoa) izango da, eta, gero, Ergobiko historia ezagutzeko bisita bat egingo dute parte hartzaileek.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Izan BERRIAkide (https://www.berria.eus/berrialaguna/)

Hasi saioa (http

4 **Statkraft, Iberdrola eta eolikoen premia (https://www.berria.eus/paper 09-28/statkraft-iberdrola-eta-eolikoen-premia.htm)**
IÑAKI PETXARROMAN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/INAKI_PETXAR

5 **Gaztelaniazko ikus-entzunezkoak dira nagusi Uemako herrietako ikasleen artean (https://www.berria.eus/albist ikus-entzunezkoak-dira-nagusi-uemako-herrietako-ikasleen-artean.htm)**
JULEN APERRIBAI (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/JULEN_APERRI

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

**Izan BERRIAlaguna (https://www.berria.eus/be**




(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=27797914&insid=10644152&pgid=1 069c-485c-8ff3-6169a50ccc14&opdt=1664399952677&tm _59f_t0eY1P9_r_v-Qzjhfdt-8F2L_W_L0X42E7NF36pq4KuR4Eu3LBI v_t_-39T37-3_3__5_X---

## Gaiak

- Sagar Uztaren Jaia (https://www.berria.eus/etiketak/sagar-uztaren-jaia/)
- Gastronomia (https://www.berria.eus/etiketak/gastronomia/)
- Nekazaritza (https://www.berria.eus/etiketak/nekazaritza/)
- Bizimoduak (https://www.berria.eus/etiketak/bizimoduak/)
- Ekonomia eta finantzak (https://www.berria.eus/etiketak/ekonomia-eta-finantzak/)
- Gipuzkoa (https://www.berria.eus/etiketak/gipuzkoa/)
- Euskal Herria (https://www.berria.eus/etiketak/euskal-herria/)

## Albiste gehiago

_e_V399zLv9____39nN___9v-
(https://www.berria.eus/berrialaguna/)
Izan BERRIAlaguna
Hasi saioa
ondorioz-sagarrak-azkarrago-heltzen-
ari-
dira.htm&cappid=51857394765081803358



[Martxan da Ikusgela, euskarazko bideo pedagogikoen ataria (https://www.berria.eus/paperekoa/1857/028/001/2022-09-28/martxan-da-ikusgela-euskarazko-bideo-pedagogikoen-ataria.htm)]

AMAIA JIMENEZ LARREA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/AMAIA_JIMENEZ_LARREA)

Euskal Wikilarien Elkarteak filosofiako, ekonomiako eta euskal literaturako bideoak egingo ditu



[Arzak patroia, Arzak maisua (https://www.berria.eus/paperekoa/1888/032/001/2022-09-28/arzak-patroia-arzak-maisua.htm)]

ENEKOITZ TELLERIA SARRIEGI (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/ENEKOITZ_TELLERIA_SARRIEGI)

BCC Basque Culinary Centerreko ohorezko patronatukide izendatu dute Juan Mari Arzak. Haren ekarpena eskertu dute, eta bere ezagutza partekatzeko izan duen eskuzabaltasuna goratu.



[Ohiko albisteetatik ihesi (https://www.berria.eus/paperekoa/1906/030/001/2022-09-28/ohiko-albisteetatik-ihesi.htm)]

IKER TUBIA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/IKER_TUBIA)

Reuters institutuaren arabera, geroz eta jende gehiagok erabakitzen du gaurkotasuna albo batera uztea. Eragin psikologikoa, nekea, konfiantza falta eta ezintasun sentsazioa aipatu dituzte albisteetatik deskonektatu direnek.

[Benitoren estilora (https://www.berria.eus/paperekoa/1876/028/002/2022-09-28/benitoren-estilora.htm)]

LANDER ARRETXEA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/LANDER_ARRETXEA)

## Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.

Pribatutasun politika (https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna) eta Lege informazioa (https://www.berria.eus/legeinformazioa) irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa Harpidetu

0 Comentarios

Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON

O REGISTRARSE CON DISQUS ?

Nombre

Ordenar por los más nuevos

Sé el primero en comentar.

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus